

KORANA "LIBREKI" ITZULTZEN IRUÑEAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Iruñea, 1143. Robert of Ketton (Robertus Ketenensis, latinez) teologo, astronomo, itzultzaile eta arabista ingelesak Korana itzuli zuen latinera lehenengoz. Bere bizitzako lehen urteez gutxi dakigun arren, badirudi Kettonek Parisen ikasi zuela. 1134an lau urte iraungo zuen bidaia luzea abiatu zuen Ekialdera. Bizantziar Inperioan, Palestinan eta Damaskon izan zen eta, gerora, arabierako itzultzaile gisa ezagun egingo zen.

1141erako Iberiar penintsulan zegoen; lurraldea musulmanen eta kristauen artean banatuta egonik, penintsula toki aproposa zen arabierako itzultzaileentzat. Badakigu 1143an Iruñean zela, bertako artxidiakono izendatu baitzuten. Berez, nahiago omen zuen testu zientifikoak itzultzea, teologikoak baino. Euklidesen lana ezagutzen zuen eta Al Battani nahiz Avicenaren lanak itzuli zituen. Korana, aldiz, enkarguz latineratu zuen.

1142an Petri Beneragarria Clunyo abadearen bisita jaso zuen. Abadea islamari buruzko informazioa biltzen ari zen, *Liber contra sectam sive haeresim Sarracenorum* (Sarrazenoen sekta edo edo heresiaren kontrako liburua) idazteko, eta Kettoni Korana itzultzeko ordaindu zion.

Itzultzaileak ez zuen testuaren itzulpen fidela egin; ez zabarkeriaz, intentzio



BRITISH MUSEUM

XI. mendeko Korana, Afrika iparraldekoa. Hurrengo mendean, Robert of Kettonek (c. 1110-1160) Koranaren latinezko lehen itzulpena egin zuen Iruñean.

osoz baizik. Itzulpenaren asmoaislama gutxiestea zela garbi erakusten du latinezko lehen bertsio horren izenburuak: *Lex Mahumet pseudoprophete* (Mahoma sasiprofetaren legea). Xehetasun kaltegabeak puztuz eta kutsu krudel eta lizuna emanaz, Koranaren interpretazio guttiz negatiboa osatu zuen.

1157an Tuterako kanonigo izendatu zutela eta beste ezer gutxi dakigu Kettonen azken urteez. Baina bere itzulpenak itzal luzea izan zuen. Hurrengo mendeetan Korana Europako hizkun-

tzetan itzultzen hasi zirenean, Kettonen bertsioa hartu ohi zen oinarri, eta ez originala. Esaterako, 1547an Andrea Arrivabene Kettonen itzulpena erabili zuen Korana italieraz emateko, 1616an italierazkoa hartu zuen oinarri Salomon Schweiggerrek alemanezko lehen itzulpena egiteko, eta aurrerago, alemanezkoa izango zen nederlanderazko bertsioaren oinarri. Hala, Iruñean egindako itzulpen desitxuratu hark mende luzez eragin du Mendebaldeko islamaz izan duen irudian ■



ABU AMINA ELIAS

Biblia bortitzagoa da Korana baino

Tom Anderson software ingeniariak Biblia eta Korana aztertu ditu berak garatutako Odin Text testuak analizatzeko softwarearen bidez. Indarkeria eta ankerkeria bietako zeinetan diren nabarmenagoak jakin nahi zuen Andersonnek eta emaitzak dio Bibliak Koranari irabazten diola zentzu horretan. *Anger* (haserre, amorrua) askoz maizago agertzen

da Biblian eta *trust* (konfiantza), aldiz, ohikoagoa da Koranean. Informatikariak Itun Zahar eta Berriaren nazioarteko bertsio berriak eta Koranaren 1957ko ingelesezko itzulpen bat erabili ditu ikerketarako. Emaitza beharbada zehatzagoa litzateke arabierazko jatorrizkoa aztertu izan balu, baina, behintzat, ez du Kettonen itzulpena erabili. ■